

65. artikulua. Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatiko kenkaria.

1. Zergadunek Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen Eusko Jaurlaritzako sail egokiaren aginduan zehazten diren ekipo osoetan egindako inbertsioen zenbatekoaren % 30 kendu ahal izango dute kuota likidotik.

2. Zergadunek honako hauen zenbatekoaren % 15 kendu ahal izango dute kuota likidotik:

a) EAEko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzeko ekitaldian zehar lur kutsatuak garbitzeko aktibo finkoetan egindako inbertsioak eta izandako gastuak.

b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, aktibo horiek ondoren adierazten diren helburuetako bat edo batzuk - garapen iraunkorraren eta ingurumenaren babes eta hobekuntzaren eremuaren barruan- dituzten proiektuak gauzatzean beharrezkoak badira:

a') Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.

b') Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.

c') Natura-guneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz.

d') Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.

e') Energia berriztagarrien erabilera eta energia eraginkortasuna.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatu behar du zerga-administrazioak eskatuta. Hain zuzen ere, ekipo osoetan egindako inbertsioez Eusko Jaurlaritzako sail egokiak ziurtagiria aurkeztu beharko du (Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartu duen Eusko Jaurlaritzako sail egokiaren Aginduan aipatzen diren ekipoak).

Artikulu honetako 2. idatz-zatiko a) letran aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatu behar du zerga-administrazioak eskatuta. Eusko Jaurlaritzako sail egokiak emandako ziurtagiria, letra horretan azaltzen diren betekizunak betetzen dituela frogatzen duena, aurkeztu behar du.

Artikulu honetako 2. idatz-zatiko b) letran aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatu behar du zerga-administrazioak eskatuta. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundian ingurumenaren arloko eskumena daukan sailak egindako ziurtagiria, inbertsioek letra horretan ezarritako betekizunak betetzen dituela frogatzen duena, aurkeztu beharko du.

4. Foru-arau honetako 67. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, iritziko da ez dagoela desatxikitzerik artikulu honetan araututako kenkariak baliatzen diren aktiboak, legeak hala aginduta, hirugarrenei lagatzen zaizkienean. Era berean, finantza-errentamenduko araubidean egindako inbertsioak ere kenkari honetaz baliatu ahal izango dira.

5. 67. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, artikulu honetako 1. idatz-zatian eta 2. idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatzen diren kenkariak bateraezinak dira euren artean.